

Gure taldearen izena JauJa da, 5 partaidez osaturik dagoena: Josu Larrondo, Ane Garcia, Ainhize Duran, Joane De Roba eta Uxue Izagirre. Ibaizabal Ikastolako Haur Hezkuntzako Goi mailako ikasleak gara. Proiektuan murgilduz, Txikipark bat egitea da gure proiektuaren ardatza. Eremu hau ez da soilik jolasteko leku bat, baizik eta euskara sustatzen duena, lanpetutako familiei lagunduz eta familia harremanak bermatuz. Horrez gain, familia bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera kontuan izanda, denontzat eskuragarria izango dela kontuan hartzen da, puntu garrantzitsu bezala.

Gure proiektua garrantzitsua dela uste dugu, Durangaldeko inguruan zehar hizkuntza maila gero eta baxuagoa delako, eta gure helburua hizkuntzaren erabilera positiboa sustatzea delako. Gainera, egia da Durangaldean horrelako eremu zein proiektuen falta nagusia dagoela, horregatik berritasuna dakar. Bestalde, azpimarratzekoa da proiektu hau sortzea erabaki dugula beraien kabuz zein familiarekin batera, hurrek leku dibertigarri batez gozatzeko guk proposatutako material eta ekintzen bidez.